




Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Zatikiak – Buruketak	Data:

OHARRA: Prozedura argi eta garbi egotea derrigorrezkoa da.

- 1) IES Txorierri BHI ikastetxean, **186 neska-mutil** daude DBHko bigarren mailan, hau da, ikastetxeko ikasle **guztien** $\frac{2}{9}$.



- a) Zenbat ikasle daude **guztira** ikastetxean ?

- _____ ikasle daude guztira ikastetxean.

- 2) **Hiru litro laurdeneko** $\left(\frac{3}{4}\right)$ **200 ur botila** baditugu,

- a) Zenbat litro ur ditugu **guztira** ?

- _____ litro ur ditugu guztira.





Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Zatikiak – Buruketak	Data:

3) **Bi litro eta laurdeneko** Coca-Cola botila batekin

litro laurdeneko $\left(\frac{1}{4}\right)$ edalontziak bete nahi ditugu.



a) Nola adierazten dira "bi litro eta laurden" zatiki batekin ?

- Bi litro eta laurden zatiki modua _____ da.

b) Litro laurdeneko **zenbat** edalontzi bete ditzakegu?

- _____ edalontzi bete ditzakegu.

4) IES Txorierri BHI ikastetxera doan autobusean **40** ikasle doaz.

$\frac{1}{4}$ Larrabetzukoak dira, $\frac{2}{5}$ Lezamakoak eta gainontzekoak

Zamudiokoak.

a) **Zenbat** ikasle doaz herri bakoitzetik ?

- Larrabetzutik _____ ikasle doaz.
- Lezamatik _____ ikasle doaz.
- Zamudiotik _____ ikasle doaz.

b) Zein da Zamudiokoei dagokien **zatikia** (sinplifikatuta) ?

- _____ da Zamudiokoei dagokien zatikia.




Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Zatikiak – Buruketak	Data:

5) Malguki bati tiratuz gero, **hasierako luzeraren** $\left(\frac{5}{3}\right)$ lortuko dugu.

Luzatuta 15 cm baditu,

a) zer luzera du **pausagunean** dagoenean ?

- _____ cm izango ditu pausagunean dagoenean.



6) IES Txorierri BHI ikastetxeko areto nagusian Batxilergoko ikasleak daude. Horietatik $\left(\frac{3}{5}\right)$ neska dira. Gelditzen direnetaatik $\left(\frac{2}{3}\right)$ mutilak dira eta besteak, 20 pertsona, irakasleak.

a) Zenbat neska eta zenbat mutil daude ?

- _____ neska daude.
- _____ mutil daude.